

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Guggenheim Bilbao Museoak 2015eko uztailaren 16an aurkeztuko du

Shahzia Sikander: *Paralajea*

Shahzia Sikander: *Paralajea (Parallax)*

- Egunak: uztailak 16 – azaroak 22, 2015
- Komisarioa: Alvaro Rodriguez Fominaya
- Film & Video aretoa (103)

2015eko uztailaren 16tik azaroaren 22ra Guggenheim Bilbao Museoak Shahzia Sikanderren *Paralajea (Parallax)* obra lehen aldiz aurkezten du Espainian. Honako hau da 2014an inauguratu zen bideoarteari, bideoinstalazioari eta irudia mugimenduan darabilten lanei eskainitako Museoko Film & Video aretoan egingo den bosgarren instalazioa.

Pakistanen jaio eta New Yorken bizi den Shahzia Sikander usadiozko indopertsiar miniaturen pinturan oinarritzen da gaur egungo historia kritikatzeko eta deseraikitzeke. *Paralajea (Parallax, 2013)* digitalki animatutako ehunka marrazkiz eta gouachez osatutako kanal askoko instalazioa da. Artistak Pertsiar golkoko Ormuzko itsasartearen posizio geostrategikoa hartu du lanaren abiapuntutzat. 2012an eta 2013an artista Arabiar Emirerrietara joan zen Xarjako arte bienalean parte hartzeko. Bertan lurraren, itsasoaren eta basamortuaren xehetasun ugari marraztu zituen. Xehetasun horiek digitalki biderkatu zituen bere ikus-entzunezko obra sortzeko.

Proiektu honetan munduko petrolioaren bostena igarotzen den enklabe geografiko bat kontrolatzeko sortutako tentsioa eta gatazkak arakutzen dira. Lurralde kolonialak astindu zituzten gertakari historiko nagusiak daude Shahzia Sikanderren lanaren azpian: itsas-guduak, Ekialdeko Indien Konpainia, britainiar inperioaren aireko eta lurreko bideen historia eta itsasoko merkataritza.

Paralajea (Parallax) lanarekin batera Du Yun-ek konposatutako jatorrizko soinu-banda entzun daiteke, Xarjako hiru poetak bideo honetarako berariaz sortutako sei poema barne hartzen dituen. Poesiak leku nagusia betetzen du artista pakistandarraren artegintzan, ikertzen dituen gaietan esanahi ugari sartzeko baliabide gisa erabiltzen baitu. Arabieraz idatzitako poema hauek, aldi berean, herriko gauzak eta alderdi emozionala dakarte gogora Du Yunen konposizio fin eta indartsuen bitartez.

Shahzia Sikander aitzindari izan da miniaturoko pintura arte garaikidean sartzeko, eta bere lanen bitartez duela mila urteko teknika hau berpiztu eta ikusi ahal izan da. Artista pakistandarrak bere lehen lan bideografikoa 2001. urtean burutu zuen, hainbat urtez marrazketan aritu ondoren. Bere bideo-proiektu batzuei soinua eta denbora eransteke tresna gisa animazioa erabiltzen du. Beste lan batzuetan dokumentalaren lengoia erabiltzen du bere diskurtso kritikoa zabaltzeko.

Shahzia Sikanderren animazioetan elementu abstraktuak, batetik, eta elementu figuratiboak eta testualak, bestetik, nahasten dira aldi berean, lanaren narrazio-komplexutasuna azpimarratuz. Eskalarekin eta materialekin esperimentatzen du, eta horrela, miniaturoko pinturaren estilo klasiko zorrotza eta honen

murrizketa formalak zalantzan jartzen ditu. Bere lana abstrakzioarekin lotua dago eta, neurri batean, Surrealismoarekin, lotura bisual bitxiak edo antagonikoak erabiltzen dituelako.

Biografia

Shahzia Sikander jatorri pakistandarreko artista da, eta bere praktika aitzindaria usadiozko indopersiar miniaturen pinturan oinarritzen da. Arte Ederretan lizentziatu zen 1991n Lahore-ko (Pakistan) National College of Arts eskolan. 1995ean, berriz, masterra egin zuen AEBn, Rhode Island School of Design eskolan. Bere lanean, artistak zalantzan jartzen ditu miniaturen pinturaren tropo zorrotzak eta genero honi atxikitako murrizketak. Horretarako, eskalarekin eta beste baliabide batzuekin —animazioa, bideoa, performancea eta eskala handiko instalazioak eta horma-irudiak— esperimentatzen du. Sikanderrek bakarkako erakusketak egin ditu Kopenhageko Nikolaj Kunsthal-en, New Yorkeko Whitney Museum of American Art-en, Sidneyko Museum of Contemporary Art-en, eta Washington DCko Hirshhorn Museum and Sculpture Garden-en, besteak beste. Taldeko erakusketa garrantzitsutan hartu du parte, hala nola, Fukuoka Asian Art Triennial-en, Istanbulgo Bienalean, Xarjako Bienalean eta Veneziako Bienalean. Bere lanengatik sari ugari jaso ditu, hala nola, Pakistango Kultura Ministerioarena eta Arteen Kontseilu Nazionalarena. AEBko Estatu Departamentuaren Arteen Domina eta John D. and Catherine T. MacArthur Foundation-en “genious award” saria ere jaso ditu.

Film & Video (103 aretoa)

Guggenheim Bilbao Museoko Film & Video aretoa 2014an inauguratu zen Guggenheim Bildumetako eta nazioarteko beste bilduma batzuetako bideoarteko, bideoinstalazioetako eta irudia mugimenduan darabilten lanak erakusteko helburuarekin. Iaz Film & Video aretoan nazioartean ospe handia duten hiru artisten ikus-entzunezko obrak ikusi ahal izan ziren. 2014ko martxoan Christian Marclay diziplina anitzeko artistaren *Erlojua* (*The Clock*, 2010) izeneko bideoinstalazioarekin inauguratu zen aretoa; ekainean, Ragnar Kjartansson artista islandiarrak *Bisitariak* (*The Visitors*, 2012) instalazioa aurkeztu zuen, eta 2014ko urriaren eta 2015eko martxoaren artean Rineke Dijkstra-ren 2009ko *The Krazyhouse* (*Megan, Simon, Nicky, Philip, Dee*), *Liverpool, UK* bideoinstalazioa ikusi ahal izan zen. 2015eko martxotik uztailaren 5era arte Kimsooja artistaren *Hariaren ibilbideak* (*Thread Routes*) izeneko instalazioa ikusgai egon da.

Azaleko irudia

Shahzia Sikander

Ormuz (*Hormuz*), 2013

Gouachea paper gainean

30,5 x 40,5 cm

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio

Prentsa irudiak:
Shahzia Sikander: *Paralajea (Parallax)*
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako irudiak eskuratzeko sareko zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa eremuan (prensa.guggenheim-bilbao.es/eu) izena eman dezakezu erakusketen eta eraikinaren inguruko bereizmen handiko irudi eta bideoak deskargatzeko. Oraindik konturik ez baduzu, eman hemen izena. Erabiltzailea baldin bazara, sartu zuzenean hemen erabiltzaile-izena eta pasahitza.

Argibide gehiagorako, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoaren Prentsa Arloarekin: telefonoz, +34 944 35 90 08, edo posta elektronikoko bidez, media@guggenheim-bilbao.es

1. Shahzia Sikander

Paralajea (Parallax), 2013

Hiru kanaleko koloretako animazio-filma,
soinuduna, 15 min 30 s. Musika: Du Yun

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio



2. Shahzia Sikander

Paralajea (Parallax), 2013

Hiru kanaleko koloretako animazio-filma,
soinuduna, 15 min 30 s. Musika: Du Yun

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio



3. Shahzia Sikander

Paralajea (Parallax), 2013

Hiru kanaleko koloretako animazio-filma,
soinuduna, 15 min 30 s. Musika: Du Yun

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio



4. Shahzia Sikander

Paralajea (Parallax), 2013

Hiru kanaleko koloretako animazio-filma,
soinuduna, 15 min 30 s. Musika: Du Yun

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio



5. Shahzia Sikander

Paralajea (Parallax), 2013

Hiru kanaleko koloretako animazio-filma,
soinuduna, 15 min 30 s. Musika: Du Yun

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio



6. Shahzia Sikander

Paralajea (Parallax), 2013

Hiru kanaleko koloretako animazio-filma,
soinuduna, 15 min 30 s. Musika: Du Yun

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio



7. Shahzia Sikander

Paralajea (Parallax), 2013

Hiru kanaleko koloretako animazio-filma,
soinuduna, 15 min 30 s. Musika: Du Yun

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio



8. Shahzia Sikander

Paralajea (Parallax), 2013

Hiru kanaleko koloretako animazio-filma,
soinuduna, 15 min 30 s. Musika: Du Yun

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio



9. Shahzia Sikander

Paralajea (Parallax), 2013

Hiru kanaleko koloretako animazio-filma, soinuduna, 15 min 30 s.

Musika: Du Yun

Instalazioaren ikuspegia Xarjako arte bienalean

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio



10. Shahzia Sikander

Ormuz (Hormuz), 2013

Gouachea paper gainean

30,5 x 40,5 cm

© Shahzia Sikander. Honen eskaintza: Sikander Studio



Informazio gehiagorako:

Guggenheim Bilbao Museoa

Marketing eta komunikazio Arloa

Tel: +34 944 359 008

media@guggenheim-bilbao.es

www.guggenheim-bilbao.es